

Concurso de escaparates '25

Erakuslehi txapelketa Basauri

Organizado por:



Con la colaboración de:



BASAURIKO 2025. URTEKO ERAKUSLEIHO-TXAPELKETAREN OINARRIAK

1. Antolatzailea

Basauriko Udalak Basauriko 2025eko Erakuslehi Txapelketa antolatu du, Basauriko Merkatarik Elkartearen laguntzarekin.

2. Xedea

Lehiaketaren helburua da **herriko merkataritza dinamizatzea**, erakuslehiak apainduta eta kale eta auzoak girotuko dituzten proposamen erakargarriak eginda.

Asmoa hauxe da:

*Diseinua eta **sormena sustatzea** erakuslehiotan, **bezeroak erakartzeko**.

*Erakuslehiak apainduta **gure kale eta auzoetan sortzen den giroa eta animazioa ikusaraztea basauriarrei**.

***Basauriko dendak herriko sare sozioekonomikoaren funtsezko elementu direla nabarmentzea**.

*Basauriko **merkataritzak biltzen duen talentua eta profesionaltasuna ikusaraztea eta balioan jartzea**.

3. Lehiaketaren gaia

Gaia librea da: saltoki bakoitzak nahi duen gaia aukera dezake.

4. Sariak

- 1. saria: 450 €, gehi garaikurra.
- 2. saria: 300 €, gehi garaikurra.
- 3. saria: 150 €, gehi garaikurra.
- **Herritarrek bozkatutako saria: sektoreko profesionalek establezimendua ezagutarazteko egindako bideoa, gehi garaikurra.**
- Zozketa boto-emaileen artean: **50 €-ko bi erosketa-txartel zozkatuko dira, Basauriko saltokietan gastatzeko, herri-bozketan parte hartzen dutenen artean.**

Concurso de escaparates '25

Erakusleho txapelketa Basauri

Organizado por:



Con la colaboración de:



5. Prozesua

Erakuslehoek **apainduta egon beharko dute izena ematen den unetik hasi eta, gutxienez, 2025eko abenduaren 21era arte**. Nolanahi ere, dekorazioa Gabonetako sasoi osoan uztea gomendatzen dugu.

6. Parte hartzea eta izena ematea

Basaurin jendaurreko jarduera duten saltoki eta denda guztiek parte hartu ahalko dute, **doan**.

Lokal bat baino gehiago izanez gero, establezimendu bakoitzak egin beharko du izen-ematea.

Izena emateko epea: 2025eko abenduaren 9ra arte.
Dokumentazioa: erakuslehoaren bi argazki, formatu horizontalean (ahal dela, bata egunez eta bestea gauez).

Izena emateko bideak:

- **Formularioa:** Udalak igorritako gutunean dagoen QR bidez eskura daiteke.
- **Udalaren eta Merkatarik Elkartearen webgune ofizialak:** www.basauri.eus eta www.basauricomerciantes.com.

Kontsultak: escaparate.lehiaketa@gmail.com

Telefono-zenbakia: 94.466.63.08 (Merkataritza) 94.440.33.77 (Merkatari Elkartea)

7. Epaimahaia eta balorazioa

Merkataritzan eta erakusleho-apainketan adituak izango dira epaimahaiko kideak, eta honako alderdi hauek baloratuko dituzte: sormena, estetika eta erakuslehoak ikusleak erakartzeko duen ahalmena.

8. Herri-bozketa

2025eko abenduaren 9tik 21era bitartean. Bozketa **online** izango da, formulario baten bitartez. Formulario hori parte-hartzaile bakoitzari emango zaion **QR** kodean sartuta eskuratu ahalko da, baita **Basauriko Udalaren eta Merkatarik Elkartearen webguneetan** ere.

Herritar bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahalko du.

Concurso de escaparates '25

Erakuslehi txapelketa *Basauri*

Organizado por:



Con la colaboración de:



9. Data garrantzitsuak

Izen-ematea: 2025/12/09ra arte

Dekorazioa: izena ematen den egunetik 2025/12/21era arte, gutxienez

Herri-bozketa: 2025/12/09 - 2025/12/21

Sari-banaketa: Bizkaidendak Galan, Social Antzokian, 2025/12/27an (zapatua),
20:00etan.

10. Gogoan hartu beharrekoak

Lehiaketan parte hartzen duten establezimenduek erakusleihoa diseinatzeko eta apaintzeko **gaia libreki aukeratu** ahalko dute, eta, nolanahi ere, ez dira erabiliko matxistatzat edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aurkakotzat har daitezkeen elementuak, LGTBIfobikoak, xenofoboak edo jatorriagatik, etniagatik, hizkuntzagatik, gaitasunagatik edo kulturagatik diskriminatzailetzat har daitezkeenak.

11. Bizkaidendak Erakusleiho Lehiaketa

Aurten, Bizkaidendaken urteko Gala Basaurin izango da, Udalaren eta Basauriko Merkatarik Elkartearen laguntzarekin antolatua. Galan, Bizkaidendaken Erakusleiho Lehiaketako sariak ere banatuko dira, baina lehiaketa horrek ez du loturarik herriko txapelketarekin.

Merkatari Elkarteko kide diren eta herriko txapelketan izena ematen duten establezimenduek automatikoki parte hartuko dute Bizkaidendaken Erakusleiho Lehiaketan, kontrakorik adierazi ezean.

Kide ez diren establezimenduen kasuan, Bizkaidendaken lehiaketan parte hartu ahal izateko **25 euroko kuota ordaindu** beharko dute Bizkaidendan, lehiaketa horren oinarrietan ezartzen den moduan.

12. Aldaketak oinarrietan

Antolatzaileek oinarriak aldatzeko edo sariak eman gabe uzteko eskubidea izango dute, ezohiko egoeraren bat jazoz gero.

13. Onarpena

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek ez ezik Epaimahaiaren eta antolatzaileen erabakiak ere oso-osorik onartzea.